

Erabilera azkartzeko bideen bila

Otsailaren 29an Soziolinguistika Klusterrak antolatutako I. Jardunaldiaren ardatz izan ziren euskararen erabilera indartzeko ikerketa, esperientzia, saiakera eta egitasmoak. Hona Geroa bermatzeko oraina ezagutu jardunaldiaz egindako hausnarketa.

MALORES ETXEBERRIA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAK 2007an esku artean izandako proiektuen errepeoa eginez eman zion hasiera jardunaldiari. Besteak beste, gazteen esparruan, arlo sozioekonomikoan edota familia transmisioan martxan dituzten azterlan eta egitasmoen berri eman zuten. Guztien azken helburua zera da, erabilera azkartzeko non eta nola eragin aztertzea, eta horretarako beharrezkoak diren oinarri teoriko eta metodologikoetan sakontzea. Bada guztietan beste ezaugarri esanguratsu bat, Klusterraren beraren filosofiarekin bat egiten duena, hau da, oso erakunde eta partaide desberdinak elkartzen direla proiektuetan, publiko, pribatu nahiz partaidetza sozialekoak, hausnarketarako eta lankidetzarako bilgune-sareak osatuz.

Proiektu horien artean lau hautatu zituzten jardunaldi hauetarako eta tailer moduan antolatu. Bertan bildutako 120 lagun inguruk aurrez aukeratutako lau tailerretan parte hartzeko aukera izan zuten.

Hauexek izan ziren lau tailerrak: Eralan ikerketa proiektua, lan munduan normalizazio ahaleginak hobetzeko martxan jarri duten proiektua, ikerketa-ekintza metodoan oinarritua. Iñaki Marko izan zen horren berri ematen. Buruntzaldea eskualdean (Gipuzkoa) familia bidezko transmisioa lantzeko gaiari nola heldu zaion azaldu zuten Alex Mungia HABEko teknikariak eta kronika honen egileak. Bi tailer hauek azalpenezkoak izan

ziren nagusiki. Beste biak, berriz, gazteen erabileraren ingurukoa eta normalizazio lanean gabiltzan teknika-irratien formazio premien ingurukoa, parte-hartzaileagoak izan ziren. Bi gaietan aurrez egindako lanen inguruko iritziak jasotzera bideratu ziren saioak, horretarako hainbat dinamika erabiliz.

Geldialdi bat egin eta jendearengara iristeko mezuak berritu beharra dagoela azpimarratu zuen Martinez de Lunak. Gizarte egiturak euskaldundu ditugula, baina herritarrak aldaketa premiaz jabetu gabe daudela adierazi zuen, jendeak ez dakiela zer eskatzen zaion

Euskal Herritik kanpoko aditu bat ere izan zen hizlari, Kataluniako Xarxa Cruscat zentrotako zuzendari den Xavier Vila i Moreno. Katalanaren berreskurapenean eskolak jokatu duen eta jokatzeko duen papera izan zuten aztergai. Gaztearen sozializazio eremuan hezkuntzak gaur egun oso pisu handia duela adierazi zuen eta, beraz, nahiz eta XXI. mendean esko-

lak bakarrik ez duen hizkuntza bat salbatuko, eskolarik gabe hizkuntza batek ez duela aurrera egingo esan zuen. Katalunian eskolaren bidez hizkuntza gaitasuna izugarri zabaldu dela adierazi zuen, baina horrek ez duela automatikoki ikasleen arteko erabilera informalean katalanaren alde egin. Autokritika eta gogoetaren beharra mahaigaineratu zituen, eta eskolak apustu horretan gehiago egin zezakeela azpimarratu zuen, hizkuntza kolokializatzearen bidetik.

Arratsaldeko mahai-inguruak eman zion amaiera jardunaldiari. Iñaki Mtnez. de Luna, Kike Amonarri eta Txillardegik kaleko erabilerak azken hogeitortean izan duen bilakaeraz jardun zuten, Xabier Isasi moderatzaile zutela.

Azken neurketan Bizkaiko datuek argi gorria piztu dutela adierazi zuten, espero ez zen geldialdia erakutsi dutelako. Datu positibotzat hartu dute, bestalde, haur eta gazteen artean egon den bilakaera, nahiz eta adin piramidean adin-talde hauek meharrak diren. Geldialdi bat egin eta jendearengana iristeko mezuak berritu beharra dagoela azpimarratu zuen Mtnez. de Luna. Gizarte-egiturak euskaldundu ditugula, baina herritarrak aldaketa-premiaz jabetu gabe daudela adierazi zuen, jendeak ez dakiela zer eskatzen zaion... Hauxe bere proposamena: hainbat gizarte eremutan sortzen diren gune berriak zein hizkuntzatan ari diren sortzen neurtzeko adierazle sistema adostua prestatzea. ■

Xavier Vila i Moreno

«Gaztelania hiztunak ikasten du katalana ez erabiltzeko eskubidea duela»

Soziolinguistika katalana eta hizkuntza katalana irakasten ditu eta katalanaren ezagutzak, agerkerak eta erabilerak lantzen dituen Xarxa Cruscat erakundeko zuzendaria da, besteak beste. Jolastokian katalanak duen lekuaz hitz egin dugu berarekin.

ONINTZA IRURETA

Eskoletan katalana garai batean baino gehiago irakasten da. Alabaina, katalan hiztunak gehiengo ez badira behintzat, gaztelania hiztunek katalana ez darabilte-lazio. Adibide hau jarri duzu: %70 katalan hiztunak, %20 marokoarrak eta %10 gaztelania hiztunak: marokoar etorkinek katalanez hitz egiten dute.

Idea orokorra zera da: katalanak gehiengo baldin badira, nahiz eta portzentaje esanguratsua izan beste hizkuntzetako hiztunena, horiek katalana ikasten dute. Arazoa gaztelaniarekin dago. Nahiz eta eskolak katalanez funtzionatu ikasle katalan hiztunak gaztelania hiztunak baino lehenago elebiduntzen dira. Imajinatu ezazu eskolako sarrera eta ez jolastokia, zer ikasten dute hiru urteko haurrek eskolara sartu aurretik? Ikusten dituzte guraso gaztelania hiztun elebakarrak, beste gurasoek gaztelaniaz egiten diete eta haurrek ikasten dute eskubidea daukatela elebakartasunean bizitzeko. Irakasleak salbuespena dira.

Gaztelania hiztunen zati garrantzitsu batek hizkuntzak ikasten dituen neurrian ikasten du eskubidea daukala horiek ez erabiltzeko. Marokoarrek ezin dute hori egin, badakite bertakoekin berea ez den zerbait hitz egin behar dutela eta tokiaren arabera gaztelania, katalana ala biak ikasten dituzte.

Katalan hiztunak badaki ikaskidea katalanez bikain moldatzen dela, gaztelania hiztuna izanda ere. Zergatik aldatzen du hizkuntza?

Bikain horrek kale egiten du. Batzuek bai, baina gaztelania hiztun askok ez du lortu katalana lagunartean erabiltzeko moduan menderatzea. Ikasleen

portzentaje handiak hitz egiteko eta idazteko gaitasun ahula du. Esate baterako, halako neskarekin ligatzeko hitz deman kale egiten dute katalanez. Irakaslea-ikaslea harremanean baino ez dago katalana horien kasuan.

Gaztelania hiztun horiek katalana erabiltzera bultzatzeko zer egin daiteke?

Batetik, ahozkotasuna landu. Mailek aurrera egin ahala eskolak ahozkotasuna ahaztu egin du eta eskolan egin behar litzatekeen aldatetako bat horixe da: ahozkotasuna lantzeko ohi-

mendebaldeko gizartean horrek konfliktua sortzea, baina esatea eskolak ohiturak aldatuko dituela kontu gaitzagoa da. Ez dut esan nahi ez denik kontzientziarik izan behar ohiturak aldatzeaz, baina “lortuko dugu ohiturak aldatzea” interbentzio estrategia ahula da. Argudiatu dezaket: “Hizkuntza erabilerak ugalduko ditugu aukera berdintasunean laguntzen duelako, aberasgarria delako...”, baina badiot: “Ohiturak aldatuko ditut”, hor argumentazio nazional edo linguistikoa erabili beharko dut, eta ziu-rrenik, hainbat sektorek ez du aintzat hartuko. Populazio oro bildu nahi duen hezkuntza sistema nazionalarentzat ez dut uste modurik egokiena denik.

Hortaz, argudioa aldatu, baina helburua bera da.

Helburua bada ondo ez dakitenei katalana eranstea, hori erosgarriagoa da gizarte demokratiko-pluralean, baina besterik gabe badiotzu “ohiturak aldatuko ditugu”, erantzuna izan daiteke: “Eta nahi ez badut?”. Eta nola egingo diozu argudio horri kontra bizi garen testuinguruan, alegia, norberaren askatasuna balore sakratua den gizartean? Batek dio: “Nik ez dut nahi!” eta besteak: “Nik inposatu egingo dizut!”. Nik ez nuke egoera horretara iritsi nahi. Dena dela, kontuz, eskolaz ari naiz, ez da gauza bera administrazioa.

Ikasleek katalanez ligatzea nahi baduzu, batetik, lor ezazu nahi duenak hala egitea, eta bestetik, lagundu kontzientzitzen katalanez ligatuko lukeen hori nahiz eta orain arte halakorik bururatu ez zaion. Begira zenbat irabazi duzun horrela. Sedukzio lana da. ■



ARGIA

tura berreskuratu, hasieratik bukaeraino. Kontua ez da eskolak hori egin dezakeela baizik eta egin egin behar duela. Ez ordea hizkuntza bakarrean, bi hizkuntza izanda ofizialak.

Bestetik, eskolak gazteen artean kultura katalana eta katalanezko hedabideak ezagutarazteko gehiago egin dezake. Hedabideekin aliantza estrategikoa egitearen aldekoa naiz.

Katalanaren erabilera sustatzeko diskurtso jakin batek konfliktua sor dezakeela diozu.

Eskolak ezagutza sustatzea normaltzat hartzen da, oso-oso zaila da